

Aurten inoiz baino film labur gehiago aurkeztu dira Huhezineman parte hartzeko: 66

2010/03/22

Martxoaren 12an bukatu zitzairen lanak bidaltzeko epea Huhezineman parte hartu nahi zutenei, eta inoiz baino film labur gehiago jaso dira. Aurkeztutakoetatik, **49 fikziozkoak** dira, **12 dokumental** eta **5 animaziozkoak**. Hizkuntzari dagokionez, **53 gaztelaniaz** daude, eta **13 euskaraz**.

Film hautatuak

Aurten hiru kidek osatuko dute epaimahaia, hirurak eskarmentu handikoak zinemagintzan: Ane Muñoz, Alberto Gorritiberea eta Itziar Ituño.

Antolatzaileen eskuetara heldu diren lanen artetik 10 aukeratu dituzte Sail Ofizialean lehiatzeko. Hauek:

- *2 euros y 35 céntimos* (Ion Iraizoz)
- *5 recuerdos* (Oriana Alcaine, Alejandra Marquez)
- *Etxeko bandan* (Juan Bidegain)
- *Ahate pasa* (Koldo Almandoz)
- *Beasain - Lazkao* (Jon Artola)
- *Tosferina* (Alvaro Alonso)
- *Biziitzako kopa* (Enara Goikoetxea)
- *En tierra peligrosa 3* (Pendejo, Gorrotxatepek)
- *Historia Nº 52785-614-18* (Javier Garmar, Gonzalo de Pedro)
- *Esta mañana* (William Welsh)

Hamar film laburrok **400 euro** jasoko dituzte aukeratuak izateagatik bakarrik. Orobat, Epaimahai Ofizialak 400 euroko dirusaria banatuko dio euskarazko Film Labur Onenari eta aipamen bereziak fikzio, dokumental eta animaziozko film labur onenei.

Sariak apirilaren 29an banatuko dira Zaraia zineman, Aretxabaletan, bertan egingo den ekitaldi berezi batean. Parte hartzaileek ezinbestekoa izango dute bertan izatea, hantxe jakinaraziko baitira saridunak.

Bestalde, Huhezinemaren III. aldiak badu kartel ofiziala, oinarri hartuta Psikosis, Alfred Hitchcock-en film ospetsuan. **Estibaliz Arizek** egin du, IKOko 4. mailako ikasleak.

